



ALKATETZAREN EBAZPENA

Ikusirik administrariaren karrerako funtzionarioaren plaza hornitzeko dagokion hautaketa prozesua burutu dela, oposaketa-lehiaketa sistema bidez.

Ikusirik aipatu plaza betetzeko deialdia 2024ko ekainaren 3ko 2024-0294 Ebazpenez onartu zela eta hautaketa prozesuaren deialdia zein oinarri arautzaileak 2024ko abuztuaren 14an argitaratu zirela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 156. zenbakian.

Kontuan hartuta hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzaileak eginiko proposamena, zeinetan adierazten den hautagaietako hiruk gaintitu dutela eta, emaitzarik onena Julene Aizpuru Altuna andreak lortu duenez, administrari plaza betetzeko praktiketako funtzionario Aizpuru andrea izendatzea proposatzen diola organo eskudunari.

Hori guztia ikusirik, eta indarreko legediak ematen dizkidan eskuduntzen arabera,

EBAZTEN DUT:

LEHENA: Hautaketa prozesua burututa Epaimahai kalifikatzaileak proposaturiko eran, Julene Aizpuru Altuna andrea Ormaiztegi Udaleko 2024ko Enplegu Eskaintza Publikoan barneratutako "administrari" plazan praktiketako funtzionario izendatzea.

BIGARRENA: Praktiketako epealdiaren iraupena sei (6) hilabetekoa izango da. Denbora horretan eraginkor burutu beharko ditu plazaren eginkizunak eta, epea bukatzen denean, praktikaldia ebaluatzeko txostena aukeztuko du dagokion Udal sailak oinarrietan zehaztutako eran. Praktikaldiak izaera baztertzalea izan dezake.

HIRUGARRENA: Praktiketako funtzionario izendapenak 2025eko martxoaren 1etik aurrera izango du administrazio eragina.

LAUGARRENA: Ebazpen honen berri ematea interesatuei, Kontuhartzailatza Sailari eta langileen ordizkeriei, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrialdean ebazpen hau eta hautaketa prozesuaren arabera sortutako lan poltsaren publizitatea ematea.

ADMINISTRARIAREN HAUTAKETA PROZESUAREN ONDORIOZ SORTUTAKO LAN POLTSA

Hurrenkera	Izen-abizenak	Nortasun agiria
1	Zuriñe Madinabeitia Terrones	***5555**
2	Maidier Iztueta Dorronsoro	***0287**





BOSTGARRENA: Erabaki honen edukia interesatuari jakinarazi, ohartaraziz bide administratiboari amaiera ematen dion azaldutako behin betiko erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakeela Donostiako Kontentzioso-Administratiboko epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko lerroaldian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Ormaiztegin, 2025eko otsailaren 28an.

Alkatea,

Nire aurrean,
Idazkari-kontuhartzailea,

Jon Enrique Galarza

Begoña Antxustegi Bengoetxea

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

